ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# Udal eta Foru Administrazioa

## BERRIAK




**Ekainaren 9-13 / Junio 9-13**

# MOBILIZAZIO ASTEA

# GURE ESKUBIDEEN ALDE

# Enplegua eta soldata borrokatuz zerbitzu publikoak indartu!

Azken urte hauetan politikariek, politika neoliberalei men egin diete eta krisiaz baliatu dira; dekretu, lege, defizit eta zor publikoa aitzakiatzat hartuz, udal eta foru administrazioko langileok inoiz ezagutu ditugun murrizketa handienak pairatu ditugu.

Murrizketa hauek ondorio larriak izaten ari dira langile eta herritarrengan:

- Zerbitzu publiko asko kendu edo murriztu dituzte negozio pribaturako esparru bilakatuz.
- Hego Euskal Herrian 3.000 lanpostu publiko suntsitu dira udal foru administrazioan.
- Lan baldintzak kaskartu dituzte.
- Lege birzentralistak egin dituzte udalei eskumenak kenduz.
- Negoziazio kolektiboko eskubidea ukatu eta murrizketak erreferentzia bezala ezarri dituzte.

Laburbilduz: Herritarren pobretzea eta zerbitzu publikorik gabe uztea!!

## HONEN AURREAN ZER EGIN DUGU:

Honen aurrean, ELAko militante garenok ez gara geldi egon. Erabaki hauen ondorio lazgarriak zeintzuk diren aztertu eta salatu ditugu eta politika hauen aurka esparru ezberdinetan borrokatu dugu, borroka molde ezberdinak erabiliz (greba orokorretatik, idatzi eta firma bilketaraino).Gizartea ideologizatzen saiatu gara, alternatibak kaleratu ditugu eta beste politika ezberdinak egin beharra zegoela ozen eta argi oihukatu dugu.

Ados ez zegoenari politika alternatiboak egiteko bitartekoak jarri eta bide horretan jarraitzeko hauspoa eman diogu eta politika hauekin ados agertu denaren aurrean, mobilizazioaren bidez erabakiak aldatzeko borrokatu dugu. Honek bi ondorio zuzen utzi dizkigu:

**1.-** Politika alternatiboak egin nahi izan dituenak, egiteko aukera eduki du.

**2.-** Murrizketak ezarri dituenaren aurrean, mobilizazioak fruituak ematen ditu.

## POSIBLE DA

Hego Euskal Herriko beste administrazioekin konparatuz argazkia ez da berdina: Udal eta Foru administrazioan mugak jarri dizkiogu lanaldi igoerari, IT-en murrizketari, ELKARKIDETZAko ekarpenak ez egiteari eta instituzio askotan, soldata jaitsierari, aparteko ordainsaria kentzeari edo enplegu suntsiketari.

## GURE ALTERNATIBA: HASITAKO BIDEAN AURRERA PAUSOAK EMATEA

Baina bide honetan asko daukagu oraindik egiteko:

- Enplegu duina sortzeko, eros-ahalmena handitzeko eta zerbitzu publikoak indartzeko borrokatzen jarraitzea ezinbestekoa da.
- Udalerriz udalerri enplegu publikoa sortu (zerbitzu publikoa indartuz, hutsik dauden lanpostuak betez, lanaldia murriztuz), suntsitutako 3.000 enpleguak berreskuratu arte.
- Eroste- ahalmena berreskuratu: KPI-a erreferentziatzat hartuz soldata igoerak egin behar dira, kendu digutena errekuperatuz. Soldataren aldeko apustua egitea, enpleguaren aldeko apustua egitea da, zalantzarik gabe.
- Arlo publikoa garatu, aurrekontu eta zerga politikak aldatuz.
- Negoziazio kolektiboko eskubidea berreskuratu.

## HONETARAKO: ANTOLAKUNTZA ETA MOBILIZAZIOA

- Antolakuntza Udal eta Foru aldundietan: Horrela bakarrik zaindu ahal izango ditugu gure interesak. Antolakuntzak bermatuko baitigu udalaren aurrean indar korrelazioa.
- Mobilizazio sindikal eta soziala: Gu mobilizatu ezean, gero eta ahulago izango gara eta egoerari buelta ematea geroz eta zailagoa izango zaigu.

## Hortaz ekainaren 9-13ko MOBILIZAZIO ASTEAN ELKARRETARATZEAK EGINGO DITUGU. PARTE HARTU!



# Luchar por el empleo y los salarios para reforzar los servicios públicos



Los últimos años, los políticos han hecho suyas las políticas neoliberales y, aprovechándose de la crisis y valiéndose de los Decretos-Ley, el déficit o la deuda pública, a los/as trabajadores/as de la administración local y foral nos han aplicado los recortes más graves jamás conocidos.

Dichos recortes están teniendo consecuencias graves para los/as trabajadores/as y la ciudadanía:

- Han desaparecido o recortado muchos servicios públicos, en beneficio del negocio privado.
- En Hego Euskal Herria, han desaparecido 3.000 puestos de trabajo en la administración local y foral.
- Han empeorado las condiciones laborales.
- Retiran competencias a los ayuntamientos con leyes recentralizadoras.
- Niegan el derecho a la negociación colectiva y marcan referencia de recortes para otros sectores.

Resumiendo: empobrecimiento de la ciudadanía y desaparición de servicios públicos.

## ANTE ESTE PANORAMA, QUÉ HEMOS HECHO

Los/as militantes de ELA no nos hemos quedado de brazos cruzados ante este panorama. Hemos analizado y denunciado las consecuencias de estas decisiones y hemos peleado en diferentes ámbitos y formatos contra estas políticas (desde huelgas generales hasta recogida de firmas y escritos). Hemos intentado ideologizar a la sociedad, hemos planteado alternativas concretas a los recortes y hemos reivindicado alto y claro la necesidad de realizar otras políticas diferentes.

Asimismo, hemos planteado mecanismos de alternativas para que quienes no estaban y no están de acuerdo con los recortes y hemos peleado con la movilización para cambiar las decisiones de quienes se han mostrado a favor de estas políticas. Hemos sacado dos conclusiones claras:

1.- Los que han querido hacer políticas alternativas, han tenido opción de hacerlo.

2.- Ante quien ha aplicado recortes, la movilización ha dado sus frutos.

## ES POSIBLE:

En comparación con otras administraciones de Hego Euskal Herria, la situación que tenemos en la Administración Local y Foral es diferente: en la mayoría de los centros de trabajo hemos frenado el aumento de jornada, el recorte en las ITs o las no aportaciones a ELKARKIDETZA, y en muchas de las instituciones también se ha frenado el recorte salarial, la supresión de la paga extra o la destrucción de empleo.

## NUESTRA ALTERNATIVA: SEGUIR DANDO PASOS

Tenemos mucho camino por recorrer todavía. Es imprescindible seguir peleando para crear empleo digno, recuperar el poder adquisitivo y para reforzar los servicios públicos:

- Creando empleo en todos los ayuntamientos (reforzando los servicios públicos, cubriendo las vacantes, bajando la jornada laboral), hasta recuperar los 3.000 empleos destruidos.
- Recuperar el poder adquisitivo perdido: Tomando la referencia del IPC, es imprescindible realizar subidas salariares hasta recuperar lo que nos han quitado.
- Apostar por la subida salarial es apostar por el empleo, sin lugar a dudas.
- Reforzar los servicios públicos, con un cambio en los presupuestos y las políticas fiscales.
- Recuperar el respeto y el derecho a la negociación colectiva.

## PARA LOGRARLO: ORGANIZACIÓN Y MOVILIZACIÓN

- Organizarnos en los ayuntamientos y en las Diputaciones Forales: sólo así estaremos en condiciones de defender nuestros intereses. Sólo de manera organizada ganamos correlación de fuerza frente a la institución.
- Movilización sindical y social: Si nosotros/as no nos movilizamos, seremos cada vez más débiles y será más complicado darle la vuelta a la situación.

**Por ello, la semana del 9-13 de junio, REALIZAREMOS CONCENTRACIONES. ¡PARTICIPA!**

# www.ela-sindikatua.org




## ELA: INDARRA eta BABESA

Afiliazioak bermatzen du autonomia sindikala udalaren eta botere politikoaren aurrean (daukan kolorea izanda ere).

Langile erakundea gara, zu bezalako milaka langilek osatzen dutena: gure eskubideak babestu eta lan-baldintzak hobetzeko, gizarte zuzenagoa eraikitzeko eta baita gure herriaren nazio eskubideen alde egiteko ere.

Patronala oso indartsu dabil eta bitarteko guztiak oparitu zaizkio lan harremanak nahierara maneia ditzan. Beraz, bakarka ezin izango diozu aurre egin zure indar hutsez. Indar kolektiboa eta antolatua behar da errespeta gaitzaten.

Hori da ELA sindikatua: langileon indarra antolatua, zure arazoak gureak ere direlako, zure borroka gurea den bezala.

Ezagutu gaitzazu. Zatoz sindikatura!

**Sólo la afiliación garantiza autonomía sindical frente a la institución y frente al poder político (tenga el color que tenga)**

---

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

## Afiliazio orria
Hoja de afiliación

www.ela-sindikatua.org

**Izena:** / Nombre ____________________ **NAN/IFZ:** / DNI/NIF ____________________

**1.abizena:** / 1º apellido ____________________ **Emakumezkoa** / Mujer ☐ **Gizonezkoa** / Hombre ☐

**2.abizena:** / 2º apellido ____________________ **Lantokia:** / Empresa ____________________

**Jaiotegune:** / Fecha nacimiento ____________________ **Enpresaren G.S.ko zenbakia:** / Nº Seg. Social de la empresa ____________________

**Jaiotze herrialdea:** / Lugar de nacimiento ____________________ **Helbidea:** / Domicilio ____________________

**Helbidea:** / Dirección ____________________ **Herria:** / Localidad ____________________

**Herria:** / Localidad ____________________ **Lanbidea:** / Profesión ____________________

**Herrialdea:** / Provincia ________ **P.K:** / C.P ________ **Kategoria:** / Categoría ____________________

**Telefonoa:** / Teléfono ________ **Mugikorra:** / Móvil ________ **Lan-hitzarmena:** / Convenio ____________________

**E-posta:** / E-mail ____________________

**Banku edo Aurrezki Kutxa:** / Banco o Caja de Ahorros ____________________

**IBAN zenbakia (Banku kontua):** / Nº IBAN (Cuenta bancaria) ________ / ________

**Data** / Fecha **Sinadura** / Firma

Sindikatuak betetzeko / A rellenar por el sindicato → **Kuota mota:** / Tipo de cuota **Arduraduna:** / Responsable

**Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenez, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege-Dekretuak garatutakoaren arabera, ELA sindikatuan izena ematen duenak badaki, eta onartu egiten du, bere datuak Sindikatuko artxibo automatizatuetan jasotzen direla; datuak artxibo horietan era konfidentzialean jasota geratuko dira. Datu horiek indarrean diren arauak aintzat hartuz landu eta babestuko dira, eta bere titularrak eskubidea izango du Sindikatuaren aurrean, datuetara iritsi, berriak zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko.**

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de Carácter Personal, y su desarrollo por el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, la persona que se afilia en el Sindicato ELA queda informada y acepta la incorporación de sus datos a ficheros automatizados existentes en el Sindicato, que se conservarán en el mismo con carácter confidencial. Tales datos serán tratados y protegidos con arreglo a la normativa vigente, y el titular de los mismos podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación u oposición ante este Sindicato.